



2020SPLE0011  
11. BILERA: EZOHIKOA 2020/11/05

## UDALEKO PLENOA. BILERA-AKTA ACTA del PLENO MUNICIPAL

BILERA ZK.: 11  
EGUNA: 2020/11/05  
HASIERA ORDUA: 19:08  
AMAIERA ORDUA: 19:47  
TOKIA: Udaleko Batzar Aretoa

Nº: 11  
DÍA: 05/11/2020  
HORA DE INCIO: 19:08  
HORA DE FINALIZACIÓN: 19:47  
LUGAR: Sal6n de Plenos del Ayuntamiento

### **BERTARATUAK:**

Gilen Garcia Boyra, **alkatea**

#### **EH Bildu udal taldea**

Itziar Irizar  
Aritz Larrañaga  
Antxon Etxeberria  
Nerea Arrizabalaga  
Antxoka Elorza

#### **Debarren Ahotsa udal taldea**

Pedro Bengoetxea  
Isidor Lamariano  
Ane Egidazu  
Enrique Salgado

#### **EAJ-PNV udal taldea**

Iñigo Cambroner  
Eneritz Gomez  
Miren Esnal Laskibar

**Idazkaria:** Jorge González Endemaño

### **ASISTENTES:**

Gilen Garcia Boyra, **alcalde**

#### **Grupo municipal EH Bildu**

Itziar Irizar  
Aritz Larrañaga  
Antxon Etxeberria  
Nerea Arrizabalaga  
Antxoka Elorza

#### **Grupo Municipal Debarren Ahotsa**

Pedro Bengoetxea  
Isidor Lamariano  
Ane Egidazu  
Enrique Salgado

#### **Grupo Municipal EAJ-PNV**

Iñigo Cambroner  
Eneritz Gomez  
Miren Esnal Laskibar

**Idazkaria:** Jorge González Endemaño



2020SPLE0011

11. BILERA: EZOHIKOA 2020/11/05

## ESAN-EGINAK ETA ERABAKIAK:

**1. Osoko bilkura hau atea itxita egitea, COVID-19 kutsatzeko edo hedatzeko prebentzio neurri gisa onartzea, hala badagokio**

Denak ados.

**2. Aurreko bilkurari dagokion akta zirriborroa (2020/09/24) onartzea, hala badagokio.**

Bertaratutako guztiak ados daude. Horrenbestez, 2020/09/24an egindako osoko bilkurako akta aho batez onartzen da.

## 3. Alkatearen dekretuen kontrola

**Pedro:** 335AD eta 336AD zerga-biltzailearen eta aparejadorearen izendapena dira?

**Gilen:** Zerga-biltzailearena da sortu berri den postua. Bitartekoa bezala kontratatu da eta bere izendapena da. Ikusi genuen lanpostua sortuko balitz edukiko genuela une luzeegia inor gabe. Ezinbesteko postua da eta ikusi zen ahalik eta azkarren egitea epe baten informazio eta ezagutzaren trukaketa egiteko.

**Gilen:** 336. dekretua aparejadorearen izendapena da, enplegu Planaren bitartez.

**Pedro:** Ados.

## TEMAS TRATADOS Y ACUERDOS:

**1. Aprobar, si procede, celebrar esta sesión de pleno a puerta cerrada, como medida de prevención del contagio o propagación del COVID-19**

Todos los presentes están de acuerdo.

**2. Aprobar, si procede, borrador del acta de la sesión anterior (24/09/2020)**

Todos los presentes están de acuerdo, por lo que queda aprobada por unanimidad el acta del pleno celebrado el 24/09/2020.

## 3. Control de los Decretos del Alcalde.

**Pedro:** ¿El AD335 y AD336 son el nombramiento del recaudador y del aparejador?

**Gilen:** Sería del recaudador, el puesto que se acaba de crear. Se contrató interinamente y el decreto es su nombramiento.

Vimos que si se creaba el puesto, tendríamos un periodo de tiempo demasiado largo sin nadie. Al tratarse de un puesto esencial decidimos hacerlo lo antes posible para que hay un trasvase de información y conocimiento entre las personas.

**Gilen:** El decreto 336 es el nombramiento del aparejador a través del Plan de Empleo.

**Pedro:** De acuerdo.



2020SPLE0011

11. BILERA: EZOHIKOA 2020/11/05

**Iñigo:** Zer da 337AD LEP hasierako onspena”?

**Idazkaria:** Zerga-biltzailearen postuaren eraketa. Dekretuak esaten du nola egin diren tramite guztiak,. Sortu ondoren, Lan Eskaintza Publikoan (LEP) sartuko da.

**Iñigo:** ¿Qué es el AD337, la aprobación inicial LEP?

**Idazkaria:** Es la constitución del puesto de recaudador. El decreto dice cómo se han realizado todos los trámites. Tras su creación se ofertará en OPE.

#### **4. Udalaren defentsa kontratatzea hilerriko obra espedienteen administrazioarekiko auzi-errekurtsoan**

**Gilen:** Aholkularitza juridikoa kontratatuta dago. Baina salaketa baten aurrean, udala epaitegian defendatzea aparte doa.

**Pedro:** Bereizketa hori argituta, ados gaude.

**Iñigo:** Gu ere ados gaude.

#### **4. Contratación de la defensa del Ayuntamiento en el recurso contencioso administrativo de los expedientes de la obra del cementerio**

**Gilen:** El ayuntamiento tiene contratada la asesoría jurídica, pero ante una denuncia, la representación en los juzgados es una cuestión aparte.

**Pedro:** Una vez aclarada esa diferencia, estamos de acuerdo.

**Iñigo:** Nosotros también estamos de acuerdo.

Udalbatzak aho batez onartu du Gure Abokatuak kontratatzea, Udala defendatzeko, hilerriko obraren espedienteen administrazioarekiko auzi-errekurtsoan.

El pleno aprueba por unanimidad la contratación de Gure Abokatuak para la defensa del Ayuntamiento en el recurso contencioso-administrativo de los expedientes de la obra del cementerio.

#### **5. Onartzea, hala badagokio, Debako hondartzako kafetegi, terraza eta komun publikoen aurreko emakida luzatzeko eta aldatzeko baldintzak eta preskripzioak.**

**Gilen:** Behin baino gehiagotan komentatu dugu egoera zein den, eta, bi aukera ditugu: bertan behera uztea edo mantentzea kostasek jarritako baldintzetan. Eta azken hori onartzea da

#### **5. Aprobar, si procede, las condiciones y prescripciones para la prórroga y modificación de la concesión anterior de la cafetería, terraza y aseos públicos en la playa de Deba.**

**Gilen:** En más de una ocasión hemos comentado cuál es la situación. Tenemos dos opciones: dejarlo tal cual o mantenerlo siguiendo las condiciones establecidas por costas, y es esto último



2020SPLE0011

11. BILERA: EZOHIKOA 2020/11/05

proposatzen duguna.

es lo proponemos.

Berlaratutako guztiak ados daude. Horrenbestez, Udalbatzak aho batez onartu du Deba hondartzako kafetegi, terraza eta komun publikoen aurreko emakida luzatzeko eta aldatzeko baldintzak eta preskripzioak.

Todos los presentes están de acuerdo, por lo que el pleno aprueba por unanimidad las condiciones y prescripciones para la prórroga y modificación de la concesión anterior de la cafetería, terraza y aseos públicos en la playa de Deba.

#### **6. Amillagako A.U.06 PERIaren aldaketaren hasierako onarpena, hala badagokio. 2018UPER0001.**

#### **6. Aprobación inicial, si procede, de la Modificación del PERI A.U.06 AMILLAGA 2018UPER0001.**

**Gilen:** Gai hau ere aspalditik dago mahai gainean. Azkenengo hirigintza batzordean adostasun batera iritsi ginen eta hau izango litzateke lehendabiziko pausoa publikatu eta jendaurrean ipini baino lehen. Lehendabiziko pausoa proiektuak aurrera egin dezan.

**Gilen:** Este tema está desde hace tiempo sobre la mesa. En la última comisión de urbanismo se llegó a un acuerdo, y esto sería lo primero antes de su publicación o “exposición pública”; el primer paso para que el proyecto avance.

**Pedro:** Bakarrik esatea akordio hau nire ustez positiboa dela.

**Pedro:** Únicamente comentar que este acuerdo es positivo.

**Gilen:** Ados gaude hortaz planarekin?

**Gilen:** ¿Estamos de acuerdo con el plan?

**Iñigo:** Bai.

**Iñigo:** Si.

#### **7. Martín Villa *persona non grata* izendatzearen aldeko mozioa.**

#### **7. Moción a favor de declarar *persona non grata* a Martín Villa.**

**Aritz:** Mozioa irakurtzen du horren xehetasunak azaltzen ditu.

**Aritz:** (Lee la moción y explica los detalles de la misma).

**Pedro:** Gure taldeak ez du posiziorik hartuko. Badago udaletxean batzorde bat, “adiskidetzaz eta memoria”. Gure ustez batzorde hori da toki egokiena gai horietaz posizioa hartzeko. Horrenbestez, talde bezala, abstenitu egingo gara.

**Pedro:** Nuestro grupo no se va a posicionar, ya que entendemos que existe un lugar para ello: la comisión de “Adiskidetzaz eta memoria”.

Por tanto, como grupo, nos abstendremos.

**Iñigo:** Gure taldea bai posizionatuko da.

**Iñigo:** Nuestro grupo sí se va a



2020SPLE0011

11. BILERA: EZOHIKOA 2020/11/05

Zalantzak ditugu erakundeen mozioen eta adierazpenen eraginkortasunari dagokionez.

Gure ustez, beste urrats bat eman behar dugu. Erakunde gisa, moziot honetan, posizionatzeaz gain, gogoeta egin beharko litzateke "Adiskidetza eta Memoria" mahaian. Bertan, pertsona mota horiek egindako mota horietako ekintzen erantzukizunari buruz gogoeta egin beharko litzateke. Batez ere, gertaera horiek ahaztuta gera ez daitezten, eta zer gertatu zen jendeak jakin dezan.

Horrez gain, instituzioaren posizioaz gain, zerbait gehiago egitea datozen hilabeteetan.

**Gilen:** Gobernu Batzordean esan dugun bezala, guri ere iruditzen zaigu bai mozioak eta bai adierazpenak horrantz joan beharko luketela. Baina azkenean, konpromisoa hartzea lehendabiziko pausoa da.

EAJ-PNVk egindako gogoetarekin bat egiten dugu. Bizikidetza batzordea egiten ari den lanketa interesgarria denez, horretara bideratzea interesgarria iruditzen zaigu.

Bozkatu ondoren, mozioa gehiengoz onartzen da.

Bozketaren emaitza hau da:

Aldeko bozkek: 10

Abstentzioak:3

Dokumentua: Ikusi I.eranskina

posicionar.

Tenemos dudas sobre la efectividad de estas mociones y declaraciones institucionales.

Creemos que debemos dar un paso más. Además de posicionarnos como institución en esta moción en concreto, en la mesa de "Adiskidetza eta Memoria" se debería hacer una reflexión de las responsabilidades derivadas de este tipo de acciones, tomadas por este tipo de personas, para que no quede en el olvido y que la gente sea consciente de lo que ha pasado.

Además de la posición institucional acompañarlo de algo más amplio durante los próximos meses.

**Gilen:** Como hemos dicho en la Junta de Gobierno, nosotros creemos que tanto la moción como la declaración deberían ir en esa dirección, pero al final es un primer paso para adquirir un compromiso.

Compartimos la reflexión de EAJ-PNV. Siendo interesante el trabajo que está realizando la comisión de convivencia, nos parece interesante orientarlo hacia ella.

La moción se somete a votación, resultando aprobada por mayoría, con el siguiente resultado:

Votos a favor: 10

Abstenciones: 3

Documento: ver anexo I



2020SPLE0011

11. BILERA: EZOHIKOA 2020/11/05

## 8. Adierazpen Instituzionala. Azaroak 25, Emakumeen kontrako indarkeria ezabatzeko nazioarteko eguna.

**Itziar:** Dakizuenez, Azaroaren 25ean Emakumeen kontrako indarkeria salatzen den eguna denez, eta Plenoa 26an denez, pentsatu dugu aurretik adierazpen instituzionala onartzea. Horrez gain, nahiz eta egoerak ez duen asko laguntzen, berdintasun batzordean erabaki zen egitaraua antolatzea. Beste erabaki batzuk hartu behar badira hartuko ditugu.

**Itziarrek:** (Adierazpena irakurtzen du).

**Pedro:** Gu ados gaude.

**Iñigo:** Ados gaude adierazpenarekin eta bat egiten dugu.

Bertaratutako guztiak ados daude. Horrenbestez, aho batez onartzen da adierazpen instituzionala: Azaroak 25, Emakumeen kontrako indarkeria ezabatzeko nazioarteko eguna.

Dokumentua: Ikusi II. eranskina.

## 9. Eskari eta galderak

**Isidor:** Galdera kanposantua da. Ez daukagu informaziorik.

Santu Guztien eguna pasa da, okasio ona izango zen inauguratzeko.

Egon nintzen aparejadorearekin eta ez daukagu txostenik.

Aurreko batzarrean esan zen segituan beste fase batean sartuko ginela, baina fase berdinean segitzen dugu. Behintzat ez daukagu informazio hori.

## 8. Declaración Institucional. 25 de Noviembre, Día internacional para la erradicación de la violencia contra las mujeres.

**Itziar:** Como sabéis, el 25 de noviembre es el día para denunciar la violencia contra las mujeres, y siendo el pleno el 26, hemos pensado aprobar previamente la declaración institucional.

Además, aunque la situación no ayuda mucho, en la comisión de igualdad se decidió organizar el programa; si más adelante hay que tomar otras decisiones, las tomaremos.

**Itziar:** (Lee la declaración).

**Pedro:** Nosotros estamos de acuerdo.

**Iñigo:** Estamos de acuerdo con la declaración y nos unimos a ella.

Todos los presentes están de acuerdo, por lo que se aprueba por unanimidad la Declaración Institucional: 25 de Noviembre, Día internacional para la erradicación de la violencia contra las mujeres.

Documento: ver anexo II.

## 9. Ruegos y preguntas

**Isidor:** La pregunta es sobre el cementerio.

Ha pasado el día de Todos los Santos y hubiera sido un buen momento para inaugurarlo.

He estado con la aparejadora, pero no tenemos ningún informe.

En la reunión anterior se dijo que en breve pasaríamos a otra fase, pero seguimos en la misma, o por lo menos



DEBAKO UDALA

2020SPLE0011

11. BILERA: EZOHIKOA 2020/11/05

Informazioa eskatzen dugu. Txostenak behar ditugu: aparejadorearenak, enpresarenak, arkitektoarenak, sanidadekoak... guk aztertzeke eta jakiteko zer daukagun.

Beraien artean ados jartzen ez badira, epaitegira joan beharko da eta erabaki. Ezin dugu kanposantu hori zahartzen utzi, euren artean ez direlako konpontzen. Horregatik txostenak behar ditugu.

**Gilen:** Ados. Ulertzen dut. Nik ere ezinegon hori daukat gai horren inguruan.

Momentuan honetan kontu tekniko bat dago. Alde desberdinak ulertu behar dira, irakurketa desberdinak baitaude. Nahi izanez gero, galdetu aparejadoreari, idazkariari edo kontu-hartzaileari.

**Isidor:** Galdetu egiten dugu, baina txosten ofiziala behar dugu.

**Gilen:** Falta dena da udala ordezkatzeko duen parte, zer irakurketa egiten duen eta likidazioa. Hori ez da aurkeztu. Guk ezin dugu ganoraz aztertu gauza bat ez baldin baditugu dato guztiak.

**Isidor:** Eskatu datu horiek.

**Gilen:** Eskatzen ditugu.

Kontua da prozesu judizial batean sartzea honelako gauza baterako, ikusita zelan mugitzen diren gauza horiek... Denok nahi dugu portu horretara iristea ahalik eta azkarren, baina ikusten ari gara falta dela. Gure partetik, dena eginda eta aurkeztuta dago. Kontua da udaleko teknikoek prozedura hori egikaritzekoan

no tenemos esa información.

Solicitamos información, necesitamos informes: del aparejador, empresa, arquitecto, sanidad... para poderlos examinar nosotros y saber lo que tenemos.

Si no se arreglan entre ellos, tendremos que ir al juzgado.

No podemos permitir que envejezca ese cementerio porque no consigan ponerse de acuerdo. Por esta razón necesitamos informes.

**Gilen:** De acuerdo. Lo entiendo. Yo también siento ese malestar respecto a ese tema.

En este momento hay una cuestión técnica. Las distintas partes tienen que llegar a un entendimiento ya que hay distintas interpretaciones.

Si queréis podéis preguntarle al secretario, aparejador e interventor, para que os expliquen la situación

**Isidor:** Ya preguntamos, pero necesitamos un informe oficial.

**Gilen:** Lo que falta es la parte que representa al ayuntamiento, la lectura que hace y la liquidación. Eso no se ha presentado. No podemos analizar con detenimiento, si no tenemos todos los datos.

**Isidor:** Solicita esos datos.

**Gilen:** Ya los hemos pedido.

Meternos en un proceso judicial para una cosa así, viendo cómo se mueven estas cosas... Todos queremos llegar a ese puerto lo antes posible, pero vemos que aún nos falta.

Por nuestra parte está todo hecho y presentado. La cuestión es que cuando los técnicos municipales han verificado ese procedimiento ven que no hay



2020SPLE0011

11. BILERA: EZOHIKOA 2020/11/05

informazio nahikorik ez dagoela ikusten dutela. Eta zuzenean saltatu beharrean, bi parteen arteko irakurketa desberdinak daudela ikusirik, haiek argitu beharrekoa dela, haiek egon dira *in situ* lanean.

**Isidor:** Horretarako elkartu egin behar dira; baina beraien arteko harremana ez da ona.

**Gilen:** Elkartu maiz elkartzen dira. Guri gainbegiratze lana egitea dagokigu. Kontu-hartzaileari, arkitektoari edo aparejadoreari galdetu diezaiokezu eta bakoitzak bere ikuspuntua emango dizu. Baina haiek ez badute argi ikusten, ez dagoelako informazio guztia mahai gainean, edo desadostasunak daudelako balorazio desberdinetan, zaila da.

Nire iritzia da epaitegira joan aurretik saiatzea akordio batera iristea.

**Isidor:** Ni duela hiru hilabete egon nintzen hango kapatazakin eta erakutsi zidan instalazio guztia. "Espedientea bukatuta daukagu" esan zidan, eta arketa handiagoak ipini zituztela... Orduan edukiera handiagoa dago. Aparejadoreak lehengoan esan zidan edukiera gutxi ikusten dela.

**Gilen:** Esan dizut udaletxera etortzeko, eta teknikari guztiek azalduko dizute argi eta garbi egoera zein den. Bide tekniko bat denez beraien aztertzen dituzte dokumentuak, jarraitu behar diren bideak zeintzuk diren eta abar. Administrazio-egintza soila da, baina horretara iristeko, balorazioetan irizpide desberdinak daude. Obra zuzendaritzatik esaten dute amaitzeaz

suficiente información. En lugar de saltárselo y viendo que hay distintas interpretaciones entre las partes ven que es algo que deben aclararlo pues son ellos quienes han estado trabajando "in situ".

**Isidor:** Pero para ello deben reunirse, y su relación no es buena.

**Gilen:** Se reúnen con frecuencia. A nosotros nos corresponde realizar las labores de supervisión.

Puedes preguntar al interventor, arquitecto, aparejador, y cada uno te dará su punto de vista. Pero si ellos no ven claro porque falta información o porque existen desavenencias en distintas valoraciones, es difícil.

Mi opinión es que antes de ir a los juzgados, debemos esforzarnos por llegar a un acuerdo.

**Isidor:** Yo estuve hace tres meses con el capataz y me enseñó toda la instalación. Me dijo "tenemos el expediente acabado" y que habían puesto arquetas más grandes. Entonces tiene una mayor capacidad. El aparejador me dijo el otro día que se ve poca capacidad.

**Gilen:** Ya te he dicho que vengas al ayuntamiento y que todos los técnicos te explicarán cual es la situación. Al tratarse de un tema técnico son ellos quienes analizan los documentos, establecen las pautas a seguir etc.

Es un simple acto administrativo, pero para llegar a él hay distintos criterios de valoración. Desde la dirección de obra han dicho que "está al terminar".





2020SPLE0011

11. BILERA: EZOHIKOA 2020/11/05

dagoela.

**Isidor:** Enpresak zer esaten du?

**Gilen:** Beraiek onartu zituzten udal teknikariak egindako hainbat ekarpen eta gabeziak eta egingo zituztela.

**Isidor:** Sanidadekoak pasatu al dira?

**Gilen:** Ematen du gauzak ezkututzen ari garela eta hori ez da.

Nahi baduzu etorri goiz batean eta ni joango naiz zurekin teknikariengana, eta ulertuko duzu egoera zein den. Ondoren, nahi baduzue, informazio hori kontuan edukita, baloratu dezakegu zein den hartu beharreko erabakia. Baina benetan esaten dizut ez dela zuk aipatzen duzun "arinkeria". Ez bada egin ez da izan borondate faltagatik, baizik eta ez delako oso erraza

**Isidor:** Datorren astean bertan?

**Gilen:** Bai. Deitu eta bestela nik deituko dizut.

**Iñigo:** Harridura pixka bat eragiten dit guzti horrek, hirigintza batzordean esan baitzen "obraren harrera" fasean ginela. Gai horiek batzordean aztertu behar direla uste dut, eta hor eman behar dira azalpenak.

**Gilen:** Gaia ez da erraza.

**Iñigo:** Hau esaten dut guk ere informazio hori eduki nahi dugulako. Epaietari buruz ari gara, guk ezagutzen ez genituen desadostasunei buruz. Hirigintzan "harreran" ginela esan zen, bere bidea jarraitzen aldaketarik gabe. Guk bilakaera normala zela ulertzen genuen. Baina hemen beste gauza batzuk esaten ari dira.

**Isidor:** ¿Qué dice la empresa?

**Gilen:** Ellos aceptaron las aportaciones y carencias realizadas por el técnico municipal, y dijeron que las harían.

**Isidor:** ¿Han pasado los de sanidad?

**Gilen:** Parece que estamos ocultando cosas y no es así.

Si quieres, ven una mañana y te acompañaré a donde los técnicos. Entonces entenderás cuál es la situación. A continuación, teniendo en cuenta esa información, si queréis, podemos valorar cuál es la decisión que debemos tomar. Pero insisto en que no se trata de "ligereza". Si no se ha hecho, no ha sido por falta de voluntad, sino porque no es nada fácil.

**Isidor:** ¿La próxima semana misma?

**Gilen:** De acuerdo. Llámame y si no te llamo yo.

**Iñigo:** Me pilló un poco de sorpresa todo esto porque en la comisión de urbanismo se dijo que estábamos en la fase de "recepción de obra".

Al margen de que quedéis pienso que estos temas se deben tratar en la comisión y es ahí donde se deben dar las explicaciones.

**Gilen:** No es fácil el tema.

**Iñigo:** Lo digo porque nosotros también queremos tener esa información. Se está hablando de un juicio, un desencuentro que nosotros desconocíamos. En urbanismo se dijo que estábamos en recepción, que seguía su curso y que no había modificaciones. Nosotros entendíamos que era un devenir normal del trámite. Pero aquí se están diciendo otras cosas.



2020SPLE0011

11. BILERA: EZOHIKOA 2020/11/05

**Gilen:** Ez, berriro azalduko dut. Ibilbide osoan prozesuaren fase horretan gaude: harreraren fasean. Administrazio-egintza hori eman dadin, baldintza batzuk egon behar dira. Udala ordezkatzeko dutenek, enpresa ordezkatzeko dutenek, eta udal teknikariek, txostenak egin behar dituzte horren inguruan. Maila praktikoan negoziatzea da, eta, hor gaude. Informaziorik falta bada teknikariek argi azalduko dute hori. Kontua da hor desadostasun batzuk daudela. Puntualizazio tekniko batzuk egon dira enpresarekin eta enpresak onartu ditu, baina balorazioan iritsi desberdinak daude.

**Isidor:** Aparejadoreak esandakoak gauza potologoak ziren. Adibidez, argindar-hargunea zona itsas-lehortarretik pasatzen zela, hezurtokia egin gabe zegoela, edukiera gutxi zeukala... horiek gauza potologoak dira.

**Pedro:** Hona etorri aurretik aparejadorearekin egon gara, eskatu dugu informazioa eta nahiko kezkatuta gaude. Gure buruan ez zeuden zuk esandakoak. Kanpotik errazago ikusten da; azkenean daude: aparejadorea, nagusi teknikoa udaletxetik kontratatuta eta enpresa.

**Gilen:** Bai, balorazioak eta likidazioak ez dizkigute aurkeztu; deigarria da. Hitz egingo dugu. Egiten ari garena da botatzea entzun ditugunak ezagutzarik

**Gilen:** No, lo voy a explicar de nuevo. A lo largo de todo el recorrido nos encontramos en esa fase del proceso: la fase de recepción. Para que se dicte este acto administrativo deben existir unas condiciones.

Los que representan al Ayuntamiento, los que representan a la empresa y los técnicos municipales deben elaborar unos informes. En la práctica es una negociación, y es ahí donde estamos. En esta negociación, los técnicos indicarían claramente la falta de información, si la hubiera.

La cuestión es que hay unas discrepancias. Ha habido unas puntualizaciones técnicas con la empresa y esta las ha aceptado, pero hay discrepancias en la valoración.

**Isidor:** Lo que me comentó el aparejador eran cosas más serias. Por ejemplo, que la acometida eléctrica pasa por "terreno marítimo-terrestre", que el osario estaba sin hacer, que tenía poca capacidad.... Esas cosas son importantes.

**Pedro:** Hemos estado con el aparejador antes de venir; hemos solicitado la información y estamos bastante preocupados.

En nuestras mentes no estaba lo que tú has comentado. Es cierto que desde fuera se ve más sencillo; al final está el aparejador, el jefe técnico contratado por el ayuntamiento y la empresa.

**Gilen:** Si, no nos han presentado las valoraciones ni las liquidaciones; es llamativo. Hablaremos, es lo que estamos haciendo. Yo tampoco puedo



2020SPLE0011

11. BILERA: EZOHIKOA 2020/11/05

gabe. Nik ere ezin dut nahiko ganoraz gai hau azaldu.

**Pedro:** Txostena aparejadorearena da.

**Gilen:** Baina hor ez dago gako nagusia, desadostasuna ez dago hor.

**Pedro:** Orain badakigu eta joango gara.

**Aritz:** Esaten ari garena da harreraren bidean gaudela.

Udalak ez du edozer hartuko, ezta?... Horregatik, aparejadoreak gauza batzuk ikusi baditu, eta nahiz eta arraroa izan, ikusi egin ditu. Eta horren inguruan egingo du bere txostena eta udal bezala hartu beharko dira erabakiak harrera egiteko.

Hori zuzendu arte, guk ez dugu harrera egingo; hori ere argi eduki behar dugu. Edo harrera egingo dugu hilerria dagoen bezala, gero udalak hartzeko bere gain gauzak gaizki daudela?

Norabide horretan gauzak argitu behar dira eta horretan txosten teknikoa izango da aparejadoreak egingo duena; beste bat kontu-hartzaileak egin beharko duena, likidazioaren inguruan, eta beste bat zerbitzu juridikoak egin beharko duena. Hori egiten ari da.

**Pedro:** Hori eskatzen dugu.

**Aritz:** Aparejadorea horretan dago.

**Isidor:** Orain dela bi aste arte ez genekien ezer.

Horrenbestez, 19:47etan amaitzen da Osoko Bilkura.

explicar con detalle este tema.

**Pedro:** El informe es de la aparejadora.

**Gilen:** Pero ahí no está la clave principal, ahí no se encuentra el punto de discrepancia.

**Pedro:** Ahora ya lo sabemos e iremos.

**Aritz:** Lo que estamos hablando es el camino de la recepción.

El ayuntamiento no va a recepcionar cualquier cosa, ¿verdad?.

Si la aparejadora ha visto algunas cosas, aunque pueda resultar extraño, las ha visto. Y en función de ello emitirá su informe. Y como ayuntamiento, habrá que tomar decisiones a la hora de recepcionarlo.

Hasta que no se corrija lo que no está bien, no vamos a recepcionar. Esto debemos tenerlo claro.

¿O acaso recepcionamos el cementerio tal cual está y el ayuntamiento asume lo que ve que está mal?

Hay que aclarar las cosas en esta dirección, y en ello habrá un informe técnico emitido por el aparejador, otro que tendrá que hacer el interventor respecto a la liquidación y otro que lo harán los servicios jurídicos. Esto se está haciendo.

**Pedro:** Eso es lo que pedimos.

**Aritz:** El aparejador está en ello.

**Isidor:** Hasta hace dos semanas no sabíamos nada.

Sin más temas que tratar finaliza el Pleno a las 19:47 horas.



DEBAKO UDALA

2020SPLE0011

11. BILERA: EZOHIKOA 2020/11/05

Jorge González Endemaño

Idazkaria /Secretario

Gilen Garcia Boyra

Alkatea /Alcalde



I.ERANSKINA / ANEXO I:

### **MARTIN VILLA PERTSONA “NON GRATA” IZENDATZEAREN ALDEKO MOZIOA**

Estatu espainiarraren inpunitate politika, diktadura frankistan eta trantsizio politiko deiturikoan gauzaturiko gizateriaren aurkako krimenen ikerketa eta auzipetze ezari dagokionez, gaur egungo arazoa da, gizartean eta gutxieneko estandar demokratikoak bete nahi dituen Estatu ororen oinarrizko zimenduetan eragina duena.

Rodolfo Martin Villa politika eta errepresio frankistaren egile nagusietako bat izan zen 60 eta 70eko hamarkadetan, SEUko buru nazional, sindikatu bertikaleko idazkari eta Bartzelonako gobernari zibil izan baitzen. Gero, Arias Navarroren gobernuarekin Harreman sindikaletarako zein gobernazio ministro eta, ondoren, Suarez gobernuarekin Barne ministro izan zen. Haren agintepean, ministro zela 1975eko abendua eta 1979ko apirila bitartean, errepresio odoltsuaren erantzule izan zen, krimen larriak gauzatu baitziren: Gasteiz (1976), amnistiaren aldeko astea edota Iruñea (Sanferminak 1978), Euskal Herrian, eta baita hemendik kanpo, Madril, Malaga, Tenerife, Bartzelona, Alacant, ...

Martin Villa inputatua izan da, justizia unibertsalaren printzipioa aplikatuta, Argentinako Errepublikaren Krimen gaietarako eta zentzategi federaleko 1. Epaitegi Nazionalen gizateriaren aurkako krimenak egotzita, haren jarduna giza eskubideen



2020SPLE0011

11. BILERA: EZOHIKOA 2020/11/05

urraketa masibo, sistematiko eta antolatuen esparruan gauzatu baitzen, berrogei urtetan zehar, diktadura frankistan, eta Trantsizio deiturikoan.

Gizateriaren aurkako krimenak direnez, preskripzioa ez da ezartzen, eta aipaturiko delituak ez daitezke ez amnistiatu, ezta indultatu ere. Horregatik, Argentinako agintari judizialek haren estradizioa eskatu zioten Gobernu espainiarrari. Ministro Kontseiluaren 2015eko martxoaren 13ko Erabakiak ukatu zuen eskaera.

Dena den, eta aipaturiko kereilaren tramitazioari utzi gabe, Estatu espainiarrak Giza Eskubideen eta nazioarteko zuzenbide penalaren arloan hartutako eginbeharrak behar bezala betetzeko, beharrezkoa da dagokien prozesu judizialak hastea, Martin Villak izan dituen erantzukizun penalak zehaztu eta garbitzeko.

Ez dirudi ordea horretarako asmoa duenik, Espainiako aginte eremu ezberdinetatik kereilaren tramitazioa galarazten saiatzeaz gain, irailean Maria Servini epaileak Martin Villari deklarazioa hartu bezperan, Gobernu presidente izandakoek eta beste zenbait pertsona esanguratsuk gutuna atera zuten Martin Villari babesa eskainiz, frankismoaren biktimentzat iraingarria eta justiziaren jardunean eragiteko ahalegin onartezina.

Aurrekoa oinarri harturik, Debako Udalaren Osoko Bilkurari eskatzen diogu ondoko mozioa har dezala:

## **MOZIOA**

1.- Gobernu espainiarra premiatu 2015eko martxoaren 13an Ministro Kontseiluak hartutako erabakia bertan behera uzteko, alegia Maria de Servini epaileak Martin Villari deklarazioa hartzeko egindako estradizio eskariari zegokiona.

2.- Nazioarteko Zuzenbidearen “estraditatu edo epaitu” printzipioa aplikatuz, Estatuak behar bezalako neurriak har ditzan auzitegi espainiarrak diktadura frankistan eta Trantsizio politiko deitutakoan gauzatutako gizateriaren aurkako krimenak ikertu eta epaitu ditzaten, eta, bereziki, Martin Villaren erantzukizuna izan daitezkeenak.

3.- Udalerrri honetan Martin Villa pertsona “non grata” deklaratzeari.

4.- Baldin eta inoiz Debako Udalak bere garaian Martin Villari emandako ohorezko aipu eta dominarik eman badizkio, berehala kentzea, inongo gorazarrearik bertan bera utziz.

5.- Maria Servini epaileari frankismoko krimenen zigorgabetasunarekin amaitzeko egiten



2020SPLE0011

11. BILERA: EZOHIKOA 2020/11/05

ari den lana eskertu, Gobernu Espainiarrak jarritako oztopo guztien ondotik, presidente izandakoek eta beste zenbait ordezkari gutun bidez Martin Villari eman babesa salatu eta Argentinako epaitegia egiten ari den lanaren jarraitzea eskatu.

6.- Erabaki hau ondoko hauei helaraztea: Justizia Ministerio espainiarrari, Auzitegi Nazionalaren buruari, Auzitegi Gorenaren buruari, Estatuko Fiskaltza Nagusiari eta Argentinako Errepublikaren Krimen gaietarako eta zentzategi federaleko 1. Epaitegi Nazionalari.

Deban, 2020ko azaroaren 5ean.

## **MOCIÓN EN FAVOR DEL PROCESAMIENTO DE RODOLFO MARTÍN VILLA**

La política de impunidad del Estado español respecto a la falta de investigación y enjuiciamiento de los crímenes contra la humanidad cometidos durante la dictadura franquista y la denominada Transición, es un problema actual que afecta a toda la sociedad y a los cimientos básicos de cualquier Estado que pretenda cumplir unos estándares democráticos mínimos.

Rodolfo Martín Villa fue uno de los principales artífices de la política y represión franquista durante los años 60 y 70, siendo Jefe Nacional del SEU, Secretario del Sindicato vertical, gobernador civil de Barcelona y finalmente ministro de Relaciones Sindicales, de Gobernación y de Interior con los gobiernos de Arias Navarro y Suárez. En sus mandatos como ministro de diciembre de 1975 a abril de 1979 tuvo responsabilidades en una cruenta represión en la que se cometieron graves y continuados crímenes: Vitoria-Gasteiz (1976), semana pro-amnistía o los sucesos de Pamplona-Iruñea (Sanfermines 1978), en Euskal Herria, y en el Estado español en Madrid, Málaga, Tenerife, Barcelona, Alacant...

Martín Villa ha sido imputado en aplicación del principio de Justicia Universal ante el Juzgado Nacional de lo Criminal y Correccional Federal número 1 de la República Argentina, como autor de crímenes contra la humanidad, ya que su actuación se desarrolló en el marco de violaciones masivas, sistemáticas y organizadas de derechos humanos cometidas por la dictadura franquista durante más de cuatro décadas, incluyendo el período de la denominada Transición.



2020SPLE0011

11. BILERA: EZOHIKOA 2020/11/05

Al tratarse de crímenes contra la humanidad, no opera el instituto de la prescripción, ni los citados delitos pueden ser amnistiados, ni indultados. Por esta razón, las autoridades judiciales argentinas solicitaron al Gobierno español su extradición, junto a la de otras 19 personas, la cual fue denegada por Acuerdo del Consejo de Ministros de 13 de marzo de 2015.

No obstante, y sin perjuicio de la tramitación de la citada querrela, para el adecuado cumplimiento de las obligaciones asumidas por el Estado español en materia de Derechos Humanos y Derecho Penal Internacional, es necesario iniciar los correspondientes procesos judiciales para determinar y depurar las responsabilidades penales en las que pudiera haber incurrido Martín Villa.

Sin embargo, no parece que el Estado español tenga intención de hacerlo, ya que, además de intentar obstaculizar la tramitación de la denominada querrela argentina desde los distintos ámbitos, en septiembre, la víspera de la toma de declaración por parte de la jueza María Servini a Martín Villa, los que fueran presidentes del Gobierno y otras personas significativas hicieron públicas unas cartas dirigidas a la jueza Servini ofreciendo su apoyo a Martín Villa, un insulto para las víctimas del franquismo y un intento inaceptable de influir en la actuación de la justicia.

En base a todo lo anterior, interesamos del Pleno del Ayuntamiento de Deba la adopción de la siguiente moción:

## **MOCIÓN**

- 1.- Instar al Gobierno español a dejar sin efecto el Acuerdo del Consejo de Ministros de 13 de marzo de relativo a las extradiciones solicitadas por la jueza María Servini para toma de declaración indagatoria.
- 2.- En aplicación de la normativa del Derecho Internacional, se adopten por el Estado español todas aquellas medidas necesarias para que por los Tribunales españoles se proceda a la investigación y enjuiciamiento de los crímenes contra la humanidad cometidos durante la dictadura franquista y la llamada Transición política y, muy en particular, de todos aquéllos cuya responsabilidad pudiera recaer en Martín Villa.
- 3.- Declarar a Martín Villa persona “non grata” en este municipio.
- 4.- Si el Ayuntamiento de Deba le hubiera concedido en su día alguna mención de honor y medalla a Martín Villa, retirarla inmediatamente, anulando cualquier ensalzamiento de su figura.
- 5.- Agradecer a la jueza María Servini el trabajo que está realizando para acabar con la impunidad de los crímenes del franquismo, tras todos los obstáculos planteados por el Gobierno español, denunciar el apoyo por medio de una carta de los ex presidentes



2020SPLE0011

11. BILERA: EZOHIKOA 2020/11/05

españoles y otros representantes a Martín Villa y solicitar la continuidad de la labor que está llevando a cabo el juzgado argentino.

6.- Trasladar el presente acuerdo al Ministerio de Justicia español, al presidente de la Audiencia Nacional, al presidente del Tribunal Supremo, al presidente del Tribunal Constitucional, a la Fiscalía General del Estado y al Juzgado Nacional de lo Criminal y Correccional Federal número 1, de la República Argentina.

En Deba, a 5 de noviembre de 2020.

II.ERANSKINA / ANEXO II:

**AZAROAK 25, EMAKUMEEN KONTRAKO INDARKERIA EZABATZEKO  
NAZIOARTEKO EGUNA  
-ADIERAZPEN INSTITUZIONAL-**

Azaroaren 25a, emakumeen kontra burutzen den indarkeria mota oro, guztiz onartezina dela esateko eguna da; gainera, indarkeria sortzen duten eragile eta egitura guztiak errefusatzeko ditugula esateko eguna da, eta gure herrian ez dugula ez bakerik ez normalizaziorik izango emakume izate hutsagatik emakumeak hiltzen eta erasotzen jarraitzen den bitartean aldarrikatzeko eguna. Horregatik, egun honetan erakunde publikoak, borroka horretan dugun lehentasunezko eragile-izaera berretsiz, konpromiso zehatzak hartu behar ditugu.

Beraz, Debako Udalak honako adierazpen instituzional hau onartu nahi du 2020ko urriaren 29ko Osoko Bilkuran.

**ZIOA:**

Azaroaren 25a "Emakumeen kontrako indarkeria ezabatzeko nazioarteko eguna" dela-eta, Debako Udalak, bere egiten du gure lurralde, herrialde eta herriak, indarkeria matxistatik gabeko gune gisa eraikitzeke ardura. Eta lehentasunezko konpromiso politikoa berresten du indarkeria mota horren adierazpen guztien kontrako borrokan, egiturazko jatorriaren eta betiketzen duen normalizazioan eraginez, orden sozial patriarkala ezinbestez aldatzeko eta, emakumeak libre biziko diren justizian eta berdintasunean oinarritutako elkarbizitza eta emakumeen eta gizonen arteko harreman ereduak errealitate bihurtzeko xedez.





2020SPLE0011

11. BILERA: EZOHIKOA 2020/11/05

Aparteko une batean bizi gara, non osasun-egoerak foku guztiak bereganatu dituen eta gure bizimoduan eragin handia izaten ari den. Egoera zaurgarrian dauden pertsonak bereziki kaltetuak izan dira, horien artean indarkeria matxistaren biktimak. Konfinamenduan emakumeek eutsi duten egoera modu bortitzagoan azalera tuko da gero, zantzu guztien arabera.

Alde batetik, zerbitzu askok funtzionamendua aldatu dute, beste batzuk gelditu egin dira eta beste batzuek baliabideak desbideratu dituzte, zuzenean edo zeharka. Bestetik, eta aurreko krisietan gertatu zen bezala, jendarte-estres handiagoak eta jendarte-gehiengoaren bizitzaren prekarietate orokorrak erasotzaileen indarkeria areagotzea ekarriko du, eta emakumeek autonomia gutxiago izango dute erabakiak hartzeko.

Konfinamenduak, alde batetik, zerbitzuen prestazioan alterazio bat eragin du, eta, bestetik, ondorio psikologikoak eta bestelakoak eragin ditzake emakume eta haurrengan, haien prozesuak eten egin baitira, eta, aldi berean, etxean indarkeria-mota eta -adierazpen desberdinak jasan baitituzte. Orain, lehentasunezkoa da jakitea, indarkeria matxistari dagokionez, nola eragiten dien krisi honek emakumeei, haien seme-alabei, eta sexu-genero sistemaren aurreko disidenteei, zer modu berri sortu diren, zer eredu aldatu diren, zer adierazpen areagotu diren... Litekeena da indarkeria matxistak beste bazterkeria- edo indarkeria-elementu batzuekin elkarreragiten duen kasu konplexuagoei erantzuteko beharra areagotzea. Izan ere, bikotekideek, bikotekide ohiek edo beste gizon batzuek emakumeengan zuzenean eragindako indarkeriaz gain, krisi honetan beste indarkeria-mota batzuk areagotuko dira, hala nola ekonomikoa. Erakunde gisa, gure betebeharra da emakume eta seme-alaba guztiek beren egoerarako arreta egokiena jasotzen dutela bermatzea.

Krisia ezin da aitzakia izan aurrekontuak izozteko edo murrizteko. Indarkeria matxistaren pandemiak lehentasuna izaten jarraitu behar du, eta, beraz, prebentzioa lantzen jarraitzeko, arreta egungo egoerara egokitzeko eta erreparazioa alde batera ez uzteko beharrezkoak diren baliabide guztiak konprometitu behar ditugu. Arazoaren sustraian eragina izango duten ekimen integralak abiaraziz bakarrik lortu ahalko da arazoa desagerrarazten aurrera egitea.

Eta, beti bezala, mugimendu eta aditu feministen eskutik egin behar dugu. Krisiaren lehen unetik ahotza altxatu duten horiek, konfinamenduan gatibu hartuta arrisku-egoeran zeuden emakumeei eta euren seme-alabei arreta emateko eskatu dute, eta behin deskonfinamendua iritsitakoan emakumeengan izango zituen ondorio bereziak begien bistatik ez galtzeko.

Gogoan dugu, halaber, aurten Euskal Herrian hil dituzten 4 emakumeak, denak konfinamenduaren hilabeteetan. Lanean jarraitu behar dugu, denok, horrelakorik berriro



2020SPLE0011

11. BILERA: EZOHIKOA 2020/11/05

gerta ez dadin. Errealitate sozial larria da, denoi interpelatzeko gaituena, ezin dugu eta ez dugu beste alde batera begiratu behar. Erakundeek erantzukizun berezia dugu horretan.

Horregatik, indarkeria matxistaren aurkako nazioarteko egun honetan, sendo adierazi nahi dugu Euskal Herria feminista, justu eta ekitatezko baten aldeko aldarrikapena, bide horren eraikuntzan honako konpromiso hauek gure gain hartuz:

- 1.- Debako Udalak Emakumeen Munduko Martxak bultzatutako indarkeria matxistaren aurreko erantzun-protokoloa bere egiten du.
- 2.- Debako Udal honek ez du murrizketarik egingo 2021eko Berdintasun batzordeko aurrekontuetan eta beharrezkoak diren partidak handituko ditu.
- 3.- Debako Udalak Foru Aldundiari eta Emakunderi eskatzen die emakume eta gizonen arteko berdintasunaren alorreko aurrekontu-partidak handitzeko, berdintasun-zuzendaritzak eta epaitegi espezializatuak modu iraunkorrean sendotzeko eta indarreko legeria berraztertze konpromisoa hartzeko, nagusiki COVID19ko krisiak eragin berezia izan duen esparruetan.
- 4.- Debako Udalak neskei, gazteei eta emakume helduei zuzendutako (eta egungo egoerari egokitutako) jabeakuntza jarduerak abiatuko ditu, besteak beste ondorengo gaiak jorratu ahal izateko modu iraunkorrean: autodefentsa feminista, bikote harremanak eta harreman sexu-afektiboak, amodio erromantikoak, sexualitate libreak, etab.
- 5.- Debako Udalak nerabeei eta gazteei zuzendutako eta egungo egoerari egokitutako sentsibilizazio eta formazio jarduerak iraunkorrak antolatzen jarraituko du emakume eta gizonen arteko harreman parekideak sustatzeko xedez, zehazki: hezkuntza sexu-afektiboa lantzeko, indarkeria matxisten askotariko adierazpenak desnaturalizatzeko, baiezko onespina lantzeko, maskulinitate ereduak lantzeko, etab.
- 6.- Debako Udaletik borroka feministaren alde hartu dugun konpromisoa berretsi nahi dugu, indarkeriarik gabeko gizarte demokratiko bat eraikitze bide eta tresna nagusia den heinean.
- 7.- Bat egiten dugu mugimendu feministak oro har eta herriko eragileek azaroaren 25erako deitutako mobilizazioekin eta egitarauarekin, eta jendarte osoari ere dei egiten diogu mobilizazio horietan parte har dezan.

Deban, 2020ko azaroaren 5ean.



2020SPLE0011  
11. BILERA: EZOHIKOA 2020/11/05

## **25 DE NOVIEMBRE, DÍA INTERNACIONAL DE LA ELIMINACIÓN DE LA VIOLENCIA CONTRA LAS MUJERES -DECLARACIÓN INSTITUCIONAL-**

La crisis brutal que ha sacudido nuestra sociedad este año ha puesto en evidencia que la vida es vulnerable y que su cuidado debe ser nuestra prioridad. Algo que saben muy bien las miles de mujeres que sufren violencia machista, una pandemia que lleva demasiado tiempo entre nosotras y nosotros.

La violencia machista es una forma de violencia estructural, presente en todos los ámbitos y sectores, también en las instituciones. Es totalmente inaceptable y no tendremos en nuestro pueblo paz ni normalización mientras se siga asesinando y ejerciendo violencia hacia las mujeres por el hecho de ser mujeres. Hoy, como instituciones públicas, debemos asumir compromisos concretos, y dar absoluta prioridad a este problema social y colectivo, sin excusa.

Por eso, el Ayuntamiento de Deba presenta la siguiente declaración institucional para la aprobación en Sesión Plenaria del 29 de Octubre de 2020.

### **MOTIVO:**

Con motivo del 25 de noviembre, "Día internacional de la eliminación de la violencia contra las mujeres", este Ayuntamiento de Deba, asume su responsabilidad en garantizar que nuestro país, nuestros territorios, nuestros pueblos, sean espacios libres de toda forma de violencia machista, y reitera su necesario compromiso político prioritario en la lucha contra todas las expresiones de la misma y sus causas estructurales así como contra la normalización que la perpetua, teniendo como objetivo el necesario cambio del orden social patriarcal y el hacer realidad modelos de convivencia y relación entre mujeres y hombres basados en la justicia y la igualdad y en los que las mujeres se sientan libres.

Vivimos un momento excepcional, en el que la situación sanitaria ha acaparado todos los focos y nuestro modo de vida se ha visto profundamente afectado. Las personas en situación de vulnerabilidad se han visto especialmente afectadas, entre ellas las víctimas de violencia machista. Las situaciones que durante el confinamiento han sostenido las mujeres saldrán luego a la luz de manera más violenta, según todos los indicios. Por una parte, muchos servicios han visto alterado su funcionamiento, otros se han parado y otros han visto desviados recursos, de manera directa o indirecta. Por la otra, y como ya ocurrió en anteriores crisis, el mayor estrés social y la precariedad generalizada de la vida de las mayorías sociales va a traer un aumento de la violencia por parte de los agresores y una menor autonomía de las mujeres para tomar decisiones.



2020SPLE0011

11. BILERA: EZOHIKOA 2020/11/05

El confinamiento ha provocado, por una parte, una alteración en la prestación de los servicios y, por la otra, probables efectos psicológicos y de otro tipo en mujeres, niñas y niños que han visto interrumpidos sus procesos a la vez que sufrían diferentes formas y expresiones de violencia en casa. Ahora, es prioritario conocer de qué manera esta crisis ha afectado a las mujeres, sus hijas e hijos, y otras personas disidentes sexo-genéricas, en términos de violencia machista, qué nuevas formas han surgido, qué patrones han cambiado, qué expresiones han aumentado... Es probable que aumente la necesidad de atender casos más complejos en los que la violencia machista interactúa con otros elementos de exclusión o violencia. Porque además de la violencia ejercida por parejas, ex-parejas u otros hombres de forma directa sobre las mujeres, durante esta crisis aumentarán otro tipo de violencias como la económica. Es nuestro deber como instituciones garantizar que todas las mujeres y sus hijas e hijos reciban la atención más adecuada a su situación.

La crisis no puede ser excusa para congelar o recortar presupuestos. La pandemia de la violencia machista debe seguir siendo una prioridad y, por lo tanto, debemos comprometer todos los recursos que sean necesarios para seguir trabajando la prevención, adecuar la atención a la situación actual y no dejar de lado la reparación. Solo poniendo en marcha iniciativas integrales que actúen sobre la raíz del problema, se podrá conseguir avanzar en su erradicación.

Y, como siempre, debemos hacerlo de la mano del movimiento y de expertas feministas. Las mismas que desde el primer momento de la crisis han alzado la voz exigiendo que se atendiera a las mujeres y sus hijas e hijos que confinadas estaban en situación de peligro y que no se perdieran de vista los efectos diferenciados que tendría en las mujeres una vez llegara el desconfinamiento.

Recordamos, asimismo, las 4 mujeres que han sido asesinadas este año en Euskal Herria, todas durante los meses de confinamiento. Debemos seguir trabajando, todas, para que esto no vuelva a ocurrir. Es una grave realidad social que nos interpela a todas, no podemos ni debemos mirar a otro lado. Las instituciones tenemos una responsabilidad particular en ello.

Por ello, en este día internacional contra la violencia machista, queremos dar a conocer de una manera firme nuestras reivindicaciones en favor de una Euskal Herria feminista, justa y equitativa, asumiendo, en la construcción de ese camino, los siguientes compromisos:

1.- Este Ayuntamiento de Deba, hace suyo el protocolo de respuesta a la violencia machista impulsado por la Marcha Mundial de las Mujeres.



2020SPLE0011

11. BILERA: EZOHIKOA 2020/11/05

- 2.- Este Ayuntamiento de Deba no realizará ningún recorte en los presupuestos de igualdad del 2021 y aumentará las partidas que sean necesarias.
- 3.- Este Ayuntamiento de Deba, emplaza a la Diputación Foral y Emakunde a no realizar ningún recorte en el presupuesto de 2021 y a ampliar las partidas presupuestarias en materia de igualdad entre mujeres y hombres, particularmente en aquellos ámbitos considerados de especial impacto por efecto de la crisis de la COVID19.
- 4.- Este Ayuntamiento de Deba, realizará de forma sostenida actividades de empoderamiento, adaptadas a la situación de crisis, y dirigidas a niñas, jóvenes y mujeres adultas en temas como las relaciones de pareja y sexo-afectivas, el amor romántico, las sexualidades libres, la autodefensa feminista etc.
- 5.- Este Ayuntamiento de Deba, continuará organizando de forma sostenida, y adaptada a la actual situación de crisis, actividades formativas y/o de sensibilización dirigidas a adolescentes y jóvenes para trabajar la educación afectivo sexual, desnaturalizar las múltiples expresiones de las violencias machistas, trabajar el consentimiento afirmativo y, en general, las relaciones en igualdad entre mujeres y hombres.
- 6.- Desde esta institución reafirmamos nuestro compromiso con la lucha feminista, como vía y herramienta principal para la construcción de una sociedad democrática sin violencias.
- 7.- Nos adherimos a las movilizaciones convocadas por el movimiento feminista y diferentes agentes municipales para el día 25 de noviembre, y hacemos un llamamiento a toda la sociedad para que participe en ellas.

En Deba, a 5 de noviembre de 2020.